



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

0. AZALA

A ze nolako azala daukagun ale honetan!!! Zenbat gauza ikusten diren marrazkian!!! Zertan ari dira?

Gure proposamena da...!!! Izenburua irakurtzera animatzea haurra eta ondoren honako galderak egitea berari:

- “Nork ez du irabazi nahi?” Zergatik uste duzu egiten digutela galdera hori?
- Zertan ari dira azaleko irudian?
- Zuri gustatzen zaizu sukaldatzea?
- Gustuko duzu lehiatzea? Eta irabaztea? Zergatik?

2. AURKIBIDEA

Gure proposamena da:

Ezkerreko aldea, aldizkariko atalak agertzen diren aldea, bion artean irakurtzea! Batak bat irakurriko du eta besteak bestea! Saltoka irakurriko dituzue! Saltoka, literalki! Alegia, izenburu bat irakurtzen duzuenean, salto egin beharko duzue eta ahots goran irakurri! Ea jolasa gustuko duzuen eta izenburuak saltoka irakurtzeko gai zareten!

Ondoren, eskuineko testutxoak irakurriko duzue. Gure proposamena zuk zeuk berari irakurtzea da. Eta behin testua irakurritik, bururatzen zaizkizun galderak egitea haurrari.

Galderak egin beharrean, haurrak, zerbait kontatu / adierazi, nahi badu, utzi lasai behar duen hori aditzera ematen.



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

3. PUPU ETA LORE

Gure txikitxoek komikia irakurtzeko, bion artean egingo duzuen joko bat luzatzen dizuegu proposamen bezala:

Ataltxo bakoitza, baten irakurri beharko du. Irakurri baina, melodia batekin lagunduz egingo duzue. Alegia, zatitxo bakoitza, melodia ezberdin bat erabiliz irakurri beharko duzue eta amaitzean erabili duzuen melodia horietatik, gustukoena duzuen aukeratu eta zuetariko batek, komiki osoa melodia hori erabiliz irakurri beharko du!

Gozatul!

4. PIRRITX , PORROTX ETA MARIMOTOTS

Testua irakurtzeko, irakurketa konpartitu bidez egin dezakezue.

Baina, irakurketa konpartitu honek, berezitasun batzuk izango du:

Irakurtzen ari denak erabakiko du noiz amaitu irakurtzen eta besteak, segundo bat galdu gabe irakurtzen amaitu duen zati horretatik irakurtzen hasi eta jarraitu beharko du azkar! Denborarik galdu gabe!

Ez da hor geldituko asuntza, ez! Paragrafo bakoitza amaitzean, buruan izan beharko duzue, zein hitzetatik hasi zareten irakurtzen eta azkar adierazi beharko diozue ondokoari!



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

Testua irakurtzen amaitzean, batak besteari istorioaren inguruko galdera bat egingo dio (ondo pentsatu beharko duzue galdera) eta ondo erantzun beharko duzue!

Ondo erantzun ezean, ... zuek erabakiko duzuen ondorio bat jarriko duzue!

Ea ba! Erabili burua eta sormena!

5. TIRITAXO

Tiritatxoren zatitxoak irakurtzeko, eskatu haurrari lasai irakurtzeko azalpentoak eta amaitzean, nahi duen horren inguruan zuri kontatzeko.

Ea zenbat ikasi eta kontatzen dizun.

6. MARIMATRAKAK

Zera proposatzen dizuegu oraingoan:

- Esan haurrari, testutxoak zuk irakurri aurretik, irudiak begiratu, zertan uste duen aritu direla gure Matrakak!
- Eskatu iezaiozu, marrazkiak ondo begiratu eta saiatzeko, horiek ikusita, istoriora aurreratzen. Ea ze kontatzen duen!
- Ondoren, irakurri iezaiozu testua eta amaitzean, egin dezala istorioaren inguruko laburpen txiki bat ahoz.
- Amaitzean, Noa eta Lea marraztea proposatzen dizuegu!



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

7. BARATZE URBANOA

Gure Karakol eta Bararen istorioa irakurtzeko, galdetu haurrari ea nola irakurri nahi duen eta horren arabera, egin nahi dituzuen ekintzak.

Zuri uzten dizugu oraingoan ekintza edo irakurketa moduaren inguruan pentsatzen!

Bururatzen zaizuna, egokia eta ezin hobeia izango da, seguru!

Aurrera ba!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Bertso hauetan, zera egin dezakezue: Bertsoak zuk irakurri diezazkiokezu berari. Baina, bertsoen errimak ez dituzu irakurriko eta bera saiatu beharko da hitzak asmatu eta errimak egiten!

Izan jokalaria, biburtu bertsolari!

9. LAGUN

Zure haurra Lagunen istorioan murgildu eta ulertzeko, honako jarduera hau proposatzen dizuegu:

- Erakutsi haurrari komikia, baina ez dezala ezer irakurri. Esan irudiak soilik begiratzeko.
- Utzi iezaiozu denboratxo bat irudiak ikusteko.



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

- Esan marrazkiak ikusiaz, istorioa (gutxi gora behera) zeren inguruan doan asmatu beharko duela.
- Asmatutako hori ahoz goran kontatzeko eskatu.
- Ondoren, grabagailu batekin grabatuko duzue.
- Amaitzeko, Lagunen istorioa irakurriko duzue eta zuek asmatutakoaren alderatuko duzue!
- *NORBERAREN AHOTSA ENTZUTEA DIBERTIGARRIA DA! IKUSIKO DUZUE!*

10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

Haurrak irakurri behar duen testua gogotsu hartzeko jarduera bat proposatzen dizuegu.

- Lehenik eta behin, esan (arrano beltzaren argazkia erakusten diozularik) testuan zehar, animalia polit eta eder honen inguruko informazio harrigarria eta imajinatzen ez duguna ageri dela inoiz pentsatuko ez genuena, eta bizitza hori zein den jakiteko, testua irakurri beharko duzuela!
- Jarraian, irakurtzen hasi aurretik, galderatxo batzuk egingo dizkiogu: nolakoak izango dira Euskal Herriko arrano beltzak? Zer jaten dute? Handiak izango dira?
- Ondoren, hasi zaitezte arrano beltzari buruzko informazioa irakurtzen!
- Testua irakurri ondoren, arrano beltzaren inguruan irakurri duen informazio harrigarrienak zein izan diren konpartituko duzue.



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

11. FILOSOFO TXIKIAK

Hitz magikoaren bila!

Atal honetara iristean haurrari honakoa azalduko diozu: “filosofo txikien atalean hitz magiko bat dago eta berau irakurtzean zerbait gertatuko da!ados?” .

Hitz magikoa zuk aukeratu eta berau esatean gertatuko dena ere zuek aukeratu, izan ere, haur bakoitzari gustatzen zaizkion gauzak guztiz ezberdinak dira. Adibidez: karameluak gora botatzea, bat-batean bere jaki gustukoena agertzea ... Amaitzeko irakurketarekin loturiko galdera batzuk konpartitzea proposatzen dugu.

- Zuri gustatzen zaizu beti lehenena izatea?
- Zergatik Mixinak beti lehenengoa izan?

Modu honetan, haurraren irrika eta interesa irakurketan zehar mantentzea lortuko duzue. ONDO PASA!



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

12. MARTIN BERTSO

Guk honakoa proposatzen dugu atala landu dezazuen:

- Martinbertsoren komikia bion artean irakurtzea!
- Irakurketa txandakatua egin dezakezue, komikiko pertsonaiak banatuz.
- Amaitzean, konpartitu galdera hauek bion artean ea ondorio berdinetara iristen zareten!
- Zer ulertu duzu?
- Zalantzarik?

13. MARIKALANBRE

Gure proposamena honakoa duzue:

- Irakurtzen hasi aurretik, begiratu irudiei eta galdetu haurrari zer ikusten duen irudietan.
- Jarraian, irakurri ezazue istorioa arreta handiz!
- Ondoren, galdetu ahurrari ea eztabaida zergatik hasi den.

Amaitzeko, esperimntua egiteko pausoak idatziko dituzue orritxo batean, testura begiratu gabe.

Modu honetan memoria landuko dugu!



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

14. LARGABISTA

Atal honetan irakurketaren aurre lanketa bat gauzatuko dugu:

- Lehenik eta behin 2 minutu utziko ditugu, komikiari gain begirada bat egiteko.
- Ondoren, galdera batzuk konpartituko ditugu:
 - Non daude?
 - Zerri begira daude?
 - Zer esan dio Lagunek, Largabistari?
 - Azkenean zer gertatu da?
 - ...

15. HAUR KANTAK

Haur kanta irakurri eta kantatzeko, zera proposatzen dizuegu:

- Ea haurrak ezagutzen duen doinua!
- Hasteko, kantuaren doinua kantatzen hasi eta haurrak asmatu egin beharko du zein den kanta!
- Ondoren kantua irakurri eta zer esaten duen ulertzen ahaleginduko gara.
- Amaitzeko abestu, dantzatu eta disfrutatu!



NORK EZ DU
NAHI IRABAZI?

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Atal honetan beti dago zer hausnartua! Guk honakoa proposatzen dugu:

- Lehenik eta behin komikia irakurri lasai-lasai eta nahi duzuen lekuan.
- Testua irakurri bitartean, zalantzak sortzen badira, argitzen saiatuko gara, galderak eginez, ulertzen ari den galdetuz...
- Komikia irakurri ondoren, komentatu azken orrian eskuinaldean ageri den informazioa.
- Amaitzeko, hitz egin gaiaren inguruan haurrarekin, ea zer nolako hausnarketa egiten duen. Horretarako egin galdera batzuk:
- Zer gertatzen da Gariri?
- Zuk nola jokatuko zenuen?
- Nola lagunduko zenioke?
- ...